



# EUSKALTEL TALDEAREN JOKABIDE-ARAUAK

<b>1.-JOKABIDE-ARAU OROKORRAK</b>	<b>2</b>
<b>2.-JOKABIDE-ARAU PARTIKULARRAK</b>	<b>3</b>
<b>2.1.-PERTSONEI DAGOKIENEZ</b>	<b>3</b>
<b>2.2.-BEZEROEI DAGOKIENEZ</b>	<b>7</b>
<b>2.3.-HORNITZAILEEI DAGOKIENEZ</b>	<b>8</b>
<b>2.4.- AKZIODUNEI DAGOKIENEZ</b>	<b>8</b>
<b>2.5.-ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI DAGOKIENEZ</b>	<b>11</b>
<b>2.6.-GIZARTEARI DAGOKIONEZ</b>	<b>12</b>



## EUSKALTEL TALDEAREN JOKABIDE-ARAUAK

Euskaltel Taldearen Kode Etikoaren garapen gisa, eta bere eginkizunei dagokienez indarrean dauden legeak betetzeaz gain, Taldearen Gobernu Korporatiboaren Sistemaren parte diren jokabide-arau hauek ezarri dira.

Jokabide-arau hauek honako hauei aplikatuko zaizkie:

- Euskaltel SAren Administrazio Kontseiluko kideei, Euskaltel SA legearen ondorioetarako Euskaltel Taldeko sozietate nagusia den heinean, eta haiek beren gain hartuko dute, aplikagarri zaien neurrian, jokabide-arau hauek Taldeko profesionalentzat ezartzen dutena (jarraian azalduko dira).
- Euskaltel Taldeko profesionalei. Taldearen edozein sozietatetan beren jardura profesionala gauzatzen duten pertsoneri (hemendik aurrera, profesionala/k), bereizi gabe zer erantzukizun duten erakundeari dagokionez, zer kokapen geografiko edo funtzional duten, eta zuzenean zerbitzuak zein sozietaterentzat ematen dituzten.
- Euskaltel Taldearen hornitzaileei, aplikagarri zaien neurrian, zeinak baitira Euskaltel Taldearentzat edozein motatako ondasunak eta/edo produktuak ematen dituzten edo zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenak edo, edozein modutara, haren kontura jarduten dutenak, hala nola hornitzaileak, enpresa azpikontratatuak eta/edo profesional independenteak, edozein direlarik ere emandako zerbitzuen helburua eta jardura gauzatzen duten lurraldea (hemendik aurrera, hornitzailea/k).

### 1.-JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

Administrazio Kontseiluko kide guztiek eta Euskaltel Taldeko profesionalek jokabide-arau hauen arabera gauzatu beharko dute beren lan-jarduna, eta, hala:

- bereziki ezagutu beharko dituzte dagozkien jardura-arloei eragiten dieten legeak, araudiak eta barne-araudia, eta ziurtatu beharko dute beren kolaboratzaileek jasotzen dutela informazio eta trebakuntza egokia beren lan-jardunean aplikatu beharrekoak diren betebeharrak eta araudiak ulertzeko eta betetzeko.
- beti Euskaltel Taldearen interes onenerako jardungo dute, beren eskura jarritako baliabideak egoki erabiliko dituzte eta Taldeari, beste profesional batzuei edo



hirugarrenei, kalterik eragin diezaiekeen edozein jardun saihestuko dute, eta bereziki eroskeria eta/edo ustelkeria saihestuko dituzte.

- gaitasun tekniko eta profesionala eta zuhurtzia eta arreta egokia baliatuko dituzte beren jardunean. Bereziki, eta arau orokor hori alde batera utzi gabe:
  - Beren funtzioak ahalik eta ondoen betetzeko behar duten gaitasuna lortzen dutela zainduko dute.
  - Aplikatu beharreko araudia beteko dute, eta, hala badagokie, esku hartzen duten eragiketen prezioak eta baldintzak zehazteko ezarritako arauak eta tarifak.
  - Barnean ezarritako prozedurak errespetatuko dituzte, eta, bereziki, beren ahalmenak gauzatzeari eta arriskuen muga aplikatzeari dagozkienak.

## **2.-JOKABIDE-ARAU PARTIKULARRAK**

Interes-taldeekin erlazionatzen direnean, Euskaltel Taldeko profesionalak eta Administrazio Kontseiluko kideek jarrera guztiz profesionala izango dute, eta, arau hauek bete behar dituzte, bereziki:

### **2.1.-PERTSONEI DAGOKIENEZ (TALDEKO PROFESIONALAK)**

#### **2.1.1.- Aukera-berdintasuna**

Taldeko profesional batek pertsonak hautatzeko, kontratatzeko edo sustatzeko prozesu batean parte hartzen duenean, aniztasunaren aldeko jarrera izango du, eta irizpide objektiboak erabiliko ditu bete beharreko lanpostuaren profil eta beharretara ondoen egokitzen diren pertsonak hautatzeko, aldiro aukera-berdintasuna bultzatuz.

#### **2.1.2.- Ekipamendu eta sistema informatikoak**

Profesionalek eguneroko jardura gauzatzeko jarri zaizkien ekipamendu eta sistema informatikoak erabiltzean, Euskaltel Taldearen sozietate bakoitzean ezarritako erabilera- eta



segurtasun-arauak eta indarrean den legedia bete behar dituzte. Ageriko segurtasun-arrazoiengatik eta eskubideak babesteko arrazoiengatik, profesionalek ez dute baimenik hirugarrenen aplikazioak edo ekipamendu informatikoak atzitzeko, Taldeak aurrez behar bezala dokumentatuta baimenik eman ez bada.

Euskaltel Taldeko profesionalek ez dituzte modu pribatuan edo pertsonalean erabiliko Euskaltel Taldeak beren jarduera gauzatzeko eskura jarri dizkien gailu eta ekipamendu informatikoak, baldin eta erabilera hori berariaz baimendu ez bada. Betebehar hori ez betetzetik eratorritako erantzukizun guztiak haiek bete ez dituen profesionalak hartuko ditu bere gain.

### **2.1.3.- Laneko segurtasuna, osasuna eta arriskuen prebentzioa**

Profesional guztien betebeharra da laneko arriskuen prebentzioaren alorrean zehaztutako lan-prozeduretan jasotako xedapenak bere egitea eta betetzea. Prozedurok Taldeko sozietate bakoitzaren laneko arriskuen prebentzio-planetan jasota egongo dira.

Euskaltel Taldeko profesional guztien ardurak da laneko segurtasuneko eta osasuneko arauak zorrotz betetzea eta beren segurtasuna eta beren jarduerak eragiten dien pertsonena zaintzea. Halaber, jarduera arriskutsuren bat egitean, arduraz erabili behar dute esleitu zaien ekipamendua, hari buruz duten ezagutza zabaldu behar dute lankideen artean, eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak betetzearen alde egin behar dute.

Taldeko profesionalek Euskaltel Taldeko sozietate bakoitzeko prebentzio-ereduaren funtzionamendua zaintzeaz arduratzen den erakundeari jakinarazi behar dizkie laneko segurtasunarekin edo osasunarekin lotuta arriskutsutzat edo ez-betetzetzat jotzen dituzten portaerak, edo, bestela, Kanal Etikoaren bidez jakinarazi behar dituzte.

Arriskua larria eta berehalakoa bada, profesionalek gauzatzen ari diren jarduera egiteari utzi behar diote istripuak saihesteko.

### **2.1.4.- Errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko tratuan oinarrituriko lan-ingurunea**



Profesional guztien ardura da diskriminazio- eta jazarpen-mota oro saihestea lan-ingurunean.

Arduraz eta solidaritatez jardun behar dute lankideekin, eta talde-lanaren espirituari jarraituz, finkatutako helburuak eta ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko.

### **2.1.5 Trebakuntza**

Profesionalek aktiboki parte hartu behar dute langileen garapen profesionala sustatzeko, eta, hala, Taldeari balio handiagoa emateko eskaintzen zaizkien trebakuntza-planetan, eta, halaber, lankideen ikaskuntza pertsonalaren eta profesionalaren alde egin behar dute.

### **2.1.6.- Euskaltel Taldeko profesionalekin erlazionatutako datuen intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzea**

Beren lan-jardunagatik hirugarren batzuei buruzko informazioa atzitzeko baimena duten Euskaltel Taldeko profesionalek hura erantzukizunez eta profesionaltasunez erabili behar dute, eta konfidentzialtasunari eutsiz betiere.

Profesionalek, beren lan-jardunean, atzitzen dituzten taldeko beste profesional batzuen datuen konfidentzialtasuna gorde behar dute, eta debekatua dute informazio hori behar ez bezala erabiltzea.

### **2.1.7.- Banakako erantzukizun soziala**

Iruzurrak edo jarduera bidegabeak ez egiteko konpromisoa hartzen dute profesionalek, eta ez dute baimenik beren objektibotasun eta/edo inpartzialtasun profesionala alda dezakeen edozein opari eskatzeko, eskaintzeko edo jasotzeko hirugarrenengandik (dela hornitzailea, bezeroa edo Administrazio Publikoa), ez eta harreman komertzialetan bidegabeki eragiteko opariak egitekorik ere.

Euskaltel Taldeko profesionalek ez dute helbide pertsonalik emango beren etxean opariak jasotzeko.



### **2.1.8. - Hirugarren batzuekin erlazionatutako datuen intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzea**

Euskaltel Taldeko profesionalak atzitzen dituzten hirugarrenen datuen konfidentzialtasuna gorde behar dute, eta debekatua dute informazio hori behar ez bezala erabiltzea.

Profesionalak diskrezioz eta profesionaltasunez erabili behar dute atzitzen duten informazioa, dagokion enpresaren jardueretarako soilik erabili behar dute, eta debekatua dute informazio hori behar ez bezala erabiltzea.

Profesional bakoitzaren ardurapean erabiltzen den informazioa modu oso, zehatz, argi eta egiazkoan tratatu eta adierazi behar da. Halaber, profesional guztiek lan profesionalaren jardunean hirugarren batzuei buruz eskuratutako informazio konfidentziala gorde behar dute (sekretu profesionala), baldin eta konfidentzialtasuna legearen aurkakoa ez bada.

Lan-harremana edo harreman profesionala bukatzen bada, profesionalak Euskaltel Taldeko dagokion sozietateari itzuli behar dio informazio erreserbatua eta konfidentziala, informazioa biltegitratzeko gailu oro eta edozein terminal informatikotan biltegitratutako informazioa barne, eta nahitaezkoa da konfidentzialtasun profesionalari eustea.

### **2.1.9.- Jabetza intelektualaren eta industrialaren babesa**

Profesionalak beren eta besteren jabetza intelektuala babesteko konpromisoa hartzen dute, hala nola patenteei, markei domeinu-izenei buruzko eskubideak, ikus-entzunezko edukiak eta softwarea erreproduzitzeko eskubideak, datu-baseak erauzteko eskubideak eta ezagutza tekniko espezializatuei buruzkoak.

### **2.1.10.- Irudi korporatiboa**

Taldeko profesional guztiek tentu handiz zainduko dute Taldearen irudia eta ospea beren jarduera profesional guztietan, eta bereziki, egin ditzaketen esku-hartze publikoetan.

## **2.2.- BEZEROEI DAGOKIENEZ**



Euskaltel Taldeko profesionalak eta hornitzaileek zintzotasunez jokatu behar dute bezeroekin — lehendik direnekin nahiz bezero izan daitezkeenekin—, elkarrekiko errespetuzko eta konfiantzako harremana ezartzeko.

Euskaltel Taldeko inongo profesionalak edo hornitzaileak ez dute erabiliko formula engainagarriarik edo iruzurrezkorik bezeroekin. Profesionalak edo hornitzaileak iruzurrik detektatzen badute, erakundeko beren arduradunari, Barne Ikuskaritzako zuzendariari, jakinarazi behar diote, edo Kanal Etikoaren bidez jakinarazi behar dute, bai profesionalen kasuan, eta bai hornitzaileen kasuan.

Profesional eta hornitzaile guztien betebeharra da eskaintako zerbitzuak emateko epeak betetzeko ezarritako protokoloak errespetatzea, eta fakturazio egokian aldaketak edo pertsonen edo enpresei mesede egingo dien iruzurrezko fakturazioa saihestea.

Euskaltel Taldeko profesionalak eta hornitzaileak eskura dute Taldeak bezeroei eskaintzen dizkien produktu eta zerbitzuei buruz behar duten informazioa, barne-dokumentazioaren bidez eta Taldeko sozietate bakoitzaren webgunean. Haien betebeharra da teknologia Bezeroei gerturatzea, eta informazioa egunetik egunera eskuragarriagoa egiten saiatzea.

### **2.3. HORNITZAILEEI DAGOKIENEZ**

Hornitzaileak hautatzeko prozesuetan parte hartzen duten Euskaltel Taldeko profesional guztiek inpartzialtasun eta objektibotasun osoz jardun behar dute, kalitate- eta kostu-irizpide zorrotzak aplikatuz, beren interes pertsonalen eta Taldearenaren arteko talkak saihestuz, eta une oro Euskaltel Taldearen Erosketa prozedurari jarraituz.

Profesionalak produktuen edo zerbitzuen egokitasunaren arabera, eta haien prezioaren, entrega-baldintzen eta kalitatearen arabera hautatuko dituzte hornitzaileak.



Edozein motatako kontratu edo negoziokoak Taldeko sozietate bakoitzaren izenean negoziatu ahal izango dituzte profesionalak soilik Euskaltel Taldearen politika edo prozedurek horretarako baimena ematen baldin badute

Indarrean dagoen araudia betetzeko eta Euskaltel Taldearen Kode Etikoa onartzeko eskatuko die Euskaltel Taldeak hornitzaileei.

## **2.4.- AKZIODUNEI DAGOKIENEZ**

### **2.4.1.- Finantza-informazioaren gardentasuna eta benetakotasuna**

Euskaltel Taldeko profesionalak osotasun finantzarioaren printzipioari jarraitu behar diote eta hura zorrotz betetzea zaindu, datuak, kontabilitateko idazpenak edo fakturak faltsutu edo ezkutatu gabe, dokumentuak faltsifikatu gabe, kontabilitate bikoitzak eraman gabe edo administrazio publikoetatik, Ogasun Publikotik eta/edo Gizarte Segurantzatik legez kontrako onurak sor ditzakeen antzeko beste edozein ekintza egin gabe.

Euskaltel Taldeko profesionalak dokumentazio egokian eta egiaztagarrian oinarrituta egin behar dituzte eragiketa ekonomiko guztiak.

Profesionalak kontabilitateko egoera-orriak egiteko erabilitako dokumentazio osoa gorde behar dute, legeak ezarritako denboran.

Profesional orok gardentasunez jokatu du, eta Euskaltel Taldearen kontabilitate-erregistroetako eta txostenetako informazioa ezkutatu eta desitxuratu gabe. Informazio hori osoa, zehatza eta benetako izango da.

### **2.4.2.- Irudi korporatiboa eta informazioa**





Euskaltel Taldeko profesionalek eta/edo hornitzaileek ezingo dute erabili Euskaltel Taldearen irudi korporatiboa —ez eta hura osatzen duten sozietateena ere—, dagokion arloaren baimenik gabe.

Profesionalek konpromisoa hartzen dute aurrez izandako lanposturen baten ondorioz edo beste moduren batera beste enpresa bati buruz lortutako edozein motatako informazioa edo dokumentazioa —fisikoa nahiz elektronikoa— ez erabiltzeko beren lanpostuan, enpresa haren baimenik gabe.

#### **2.4.3.- Taldearen ondasunak**

Beren eskura jarri diren Euskaltel Taldearen ondasun materialak modu egokian erabiltzeko konpromisoa hartzen dute taldeko profesionalek, haiek babestekoa eta erabilera-egoera egokian kontserbatzekoa.



Euskaltel Taldeak software propioa edo lizentziaduna duen ordenagailu bat ezarriko die, beste baliabide batzuen artean, profesional guztiei. Ordenagailu horretan, segurtasun-arrazoiengatik, ezingo dute Interneteko programarik deskargatu dagokion arloaren baimenik gabe. Arlo horretara zuzendu beharko dute horrelako eskaera guztiekin, eta hark barnean kudeatuko ditu, bideratzeak egiteko barneko prozeduraren arabera, software-katalogoan sartzea eta gero hura instalatzea.

Datuen segurtasuna bermatzea talde-lana da; datuak atzitzen dituzten Euskaltel Taldeko profesional eta Kolaboratzaile guztien zeregina funtsezkoa da. Hori dela eta, profesionalen ardura da ziurtatzea sortzean edo ezartzean helburu zuten funtzionamendu hori garatzeko baino ez direla erabiltzen Taldearen beraren edo haren gainbegiradapean dauden aplikazioak, baliabide informatikoak eta datuak, eta ez direla bideratzen jarduera bidegabeetara edo legez kanpokoetara, Euskaltel Taldeko enpresen edo hirugarrenen eskubideak hauts ditzaketenetara, edo haien segurtasuna arriskuan jar dezaketenetara.

Bereziki, Taldeko sozietate bakoitzaren segurtasun-protokoloetan jasotakoaz gain, jarduera-jarraibide hauek bete behar dituzte profesionalek:

- Ekipamendu informatikoen segurtasun- eta atzipen-neurriak errespetatuko dituzte; hala, oinarrizko segurtasun-arauen kontrakoa izango da Euskaltel Taldeko beste profesional bati edo hirugarren bati pasahitz pertsonal bat ematea, eta ematen duen haren gain egongo da arau hori ez betetzeak izan dezakeen edozein erantzukizun.
- Ez dituzte ekipamendu informatikoak erabiliko helburu pertsonaletarako edo Euskaltel Taldearen jarduera ez direnetarako, ezta helburu bidegabeetarako edo Euskaltel Taldearen irudiari kalte egin diezaioketen helburuetarako ere.
- Terminalak blokeatu egin behar dituzte lanpostuetatik mugituta.
- Ez dute helbide elektronikoko partikularra erabiliko Euskaltel Taldeko gaietarako edo mezu-trukerako.
- Euskaltel Taldearen ekipamendu informatikoetan, ez dute hark emandakoa edo baimendutakoa ez den softwarerik instalatuko.
- Jarduera profesionalean erabilitako programak, eskuliburuak edo proiektuak ezin dira erreproduzitu edo laga bestelako helburuetarako, horretarako berariazko baimena izan ezean.



- Euskaltel Taldearen mesedetan jarduteko usteak ez ditu justifikatuko, inola ere, haren edo hirugarrenen informazioei eta datu eta/edo programa informatikoei eragindako kalte-galerak.

#### **2.4.4.- Lehia leiala**

Euskaltel Taldeko profesionalak uko egingo diote produktuak eta zerbitzuak saltzeko okerreko informazioa erabiltzeari edo jakinarazteari eta, oro har, lehiakideen ospea kentzeari.

Halaber, ezin dute pertsonen nahian eragin etikoak ez diren jardueren bidez onurak lortzeko, eta beste pertsona eta erakunde batzuek ere ezin dituzte jarduera horiek erabili Euskaltel Taldeko profesionalekin.

#### **2.4.5.-Arrisku korporatiboaren kudeaketa**

Euskaltel Taldeari bere helburuak lortzea edo estrategiak arrakastaz gauzatzea eragozten edo zailtzen dion arrisku oro kudeatu beharko dute Euskaltel Taldeko profesionalak, bakoitzak bere eskumeneko arloan.

#### **2.5.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI DAGOKIENEZ**

Profesionalak ez diote ez Administrazio Publikoari, oro har, ez erakunde arautzaileei, bereziki, entregatuko inolako dokumentaziorik (teknikoa, komertziala, ekonomikoa edo kontratuetakoa) aurrez dagokion sozietateko arloarekin egiaztatu gabe egiazkoak eta legezkoak direla.

Ezarritako prozedurak bere egin eta onartu behar dituzte Taldeko profesional guztiek, haietako bakoitzak garatutako jardueran aplikatzen diren arauak ez hausteko.

Agintari, administrazio edo erakunde publikoekin harremana duten profesionalak dokumentatu eta gorde egin behar dituzte trukaturako informazioa, datuak eta hartutako erabakiak.

Euskaltel Taldeko profesionalak berariaz debekatua dute, bai administrazio publikoekin produktuak eta zerbitzuak kontratatzea, bai haiengandik diru-laguntzak, desgrabazioak edo laguntzak lortzea, Euskaltel Taldearen mesederako datuak edo egoerak faltsifikatuz edo



ezkutatuz. Jarduera hori funtzionarioak edo agintari publikoak zuzenean proposatuko balu, baztertu egin behar da, eta Barne Ikuskaritzako zuzendariari jakinarazi, edo Kanal Etikoaren bidez jakinarazi.

Euskaltel Taldearen izenean administrazio publikoekin harremana duten Euskaltel Taldeko profesionalek errespetuz eta zuzentasunez jokatuko dute une oro, Gobernu Korporatiboko Sistemako legeei, jarraibideei eta barne-protokoloei jarraituz, eta, bereziki, Kode Etikoari eta Portaera Arau hauei jarraituz.

## **2.6.- GIZARTEARI DAGOKIONEZ**

Euskaltel Taldeko profesionalek konpromisoa hartzen dute Espainiako legediak onartzen dituen giza eskubideak errespetatzeko, Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak errespetatzeko eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak lan-arloan duen araudia errespetatzeko.

Euskaltel Taldeko profesionalek ingurune naturala babesteko printzipioaren arabera jardungo dute; beren jarduerekin eta instalazioen, baliabideen eta lan-bitartekoen erabilerarekin loturiko ingurumen-inpaktua murriztuko dute, eta baliabideak eraginkortasunez erabili.

Euskaltel Taldeko profesionalek debekatua dute beren jarduera profesionalarekin erlazionatutako edozein alderdiri buruzko informazioa faltsifikatzea edo ezkutatzea.

Sektoreko foroetan parte hartzeko jarrera irekia izango dute Taldeko profesionalek.